



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA
ETXEBIZITZA SAILA
Ingurumen Sailburuordetza
Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL Y VIVIENDA
Ingurumen Sailburuordetza
Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza

EBAZPENA, 2019-11-27koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Erreterriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren 6. Aldaketa Puntualaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua, Gamongoa - 56. sektoreari buruz.

AURREKARIAK

2019ko abuztuaren 23an, Erreterriako Udalak eskaera egin zuen Gamongoa - 56. sektoreko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren 6. Aldaketa Puntualaren ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta hasteko, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean eta ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatutakoaren arabera.

Planaren zirriborroa, legeria sektorialean eskatutako dokumentazioa eta hasierako dokumentu estrategikoa jasotzen ditu eskaerak.

2019ko urriaren 4aren eta azaroaren 19aren artean, eragindako administrazio publikoen eta pertsona interesdunen kontsulten tramitea egin zen, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan eta planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, 9. artikuluan ezarritako moduan.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak 10. artikuluan diotenaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, ingurumenaren babes-maila handia bermatuz, garapen jasangarria sustatze aldera.

Halaber, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren 42. artikuluan arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioek behar bezala bermatuko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko analisisa, betiere kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1. a) artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egingo zaie planei eta programei, baita haien aldaketei ere, baldin eta administrazio publiko batek onartzen baditu eta legezko edo arauzko xedapen batek aginduta egiten eta onartzen badira, ingurumen-inpaktua ebaluatu behar zaien proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua zehazten dutenean.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluazio bateratua egin behar da, ingurumen-ebaluazio estrategiko gisa ulertuta, arauaren I. eranskineko A) apartatuan jasotako planei dagokienez, eta plan horien artean dago Erreterriako Gamongoa - 56. sektoreko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren 6. Aldaketa Puntuala.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean. Arau horrek eskabideari erantsi beharreko dokumentuak xedatzen ditu 18.1 artikuluan, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean,



urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaltzen du osatu egiten du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukari buruzkoak, bai eta 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukari eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukari buruzkoak, hurrenez hurren.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, espedienteko txostenak aztertu ondoren eta aintzat hartuta Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea, Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.-Errearteriako Gamongoak - 56. sektoreko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 6. Aldaketa Puntualaren ingurumen-azterlan estrategikoaren irismenari buruzko dokumentua formulatzea, ingurumen-ondorioetarako soilik, eta honako baldintza hauen arabera:

1. Planaren aldaketaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

HAPOaren aldaketaren (aurrerantzean, Plana) xedea da 56. sektorearen, lurzoru urbanizagarri sektorizatuz osatuta dagoenaren, antolamendu egiturazko eta xehatua aldatzea, hasiera batean Gamongoak muinoko gainaldean aurreikusita zegoen eraikigarritasuna kota baxuagoetara desplazatuz, sektoreko ekialdeko mendi-magalean, Errearteriako hirigunetik hurbilago. Proposatutako Planak, lurraren erabilera global eta xehakatuaren atribuzioa aldatzen ez duenak, honako aldaketa eta jarduketak hauek aurreikusten ditu:

Esparrua mugatzea. Esparruari UI 18.3: Lekuona esparruko zati txiki bat erantzen zaio, baita Masti Loidi 41. eremu eta Txirrita Maleo 42. eremu Arramendi pasealekuko jabari publikoko azalera bat ere, Arramendi pasealekua osorik ebazteko.

Eraikigarritasuna. Sektorearen goiko zonalderako aurreikusitako eraikigarritasunaren zati handiena beheko zonaldera desplazatzen da, esparruaren ekialdera. Goiko zonaldean mantendu egingo dira gaur egun dauden baserriak, familia bakarreko / bi familiako etxeak eta ostatuzko kalte-ordainetarako behar diren berriak. Sestra gaineko eraikigarritasuna murriztu egiten da, indarrean dauden 83.148 m² (s)-etatik 57.816 m² (s)-etara. Sestra azpiko eraikigarritasuna murriztu egiten da, indarrean dauden 46.532 m² (s)-etatik 26.145 m² (s)-etara. Halaber, merkataritzarako eraikigarritasuna murriztu egiten da, 1.380 m² (s)-etatik 1.200 m² (s)-etara, eta etorkizuneko bizitegi-auzoko hiri-plazaren beheko solairuetan kontzentratzen da.

Etxebizitza kopurua. 747tik 610era murrizten da; horietatik, 440 etxebizitza babestuetara bideratzen dira; 144, etxebizitza libre kolektiboetara; 26, etxebizitza libreetara, familia bakarreko / bi familiakoen motan.

Eraikinen profila. Sektoreko beheko zonaldeko eraikuntza irekiko blokeak S/ES/SA/SS/A edo 2S/BS/SA/6S/A profila dute eta eraikuntza isolatuak, ES/SA/1S/TP profila, sektorearen goiko zonaldeko birjarpen-etxebizitzek bezala.

Espazio libreak eta berdeguneak. Mendi-magaleko zonalde altu eta ertainak bizitegi-erabileratik libre uzten dira eta parke publiko berde gisa erabiltzera zuzentzen dira 205.784 m². Hartara, zonalde berde eta espazio libreen Sistema Orokorra handitu egiten da HAPOan planteatutako 83.812 m²-en aldean eta 2007an onartutako Plan Partzialean aurreikusitako 90.087 m²-en aldean. Egungo Arramendi pasealekuan zehar, 18.580 m²-ko hiri-parkea sortzea proposatzen da espazio libreen Tokiko Sistema gisa. Hala, ibilgailu-izaera desagertzen da eta zonalde hori sektoretik pasatzen den Pekin ubidearen tarte berean integratzen da.



Errekaren tratamendua. Pekin erreka 165 metro inguru egiten ditu Gamongoa sektorearen barruan. Erreka etxebizitza kolektiboko eraikinak egongo diren eremu berean integratuta geratuko den parke-zonalde bat sortzeko irizpideari eusten zaio. Malda naturaleko ezpondak eta bioingeniaritzako teknikak erabili nahi dira erreka bideratzeko, ezpondak espezie autoktonoz landareztatuta. Erreka estali egin beharko da bidea gurutzatzeko.

Bide-antolamendua. Iparra-hegoa errepide berri bat eraikiko da eraikinen atzealdean, 15 metroko zabalera eta 560 metroko luzera izango dituen. Iparraldetik gurutzatuko du Pekin erreka eta % 3 eta % 4,5 bitarteko malda izango du. Bidea egiteko, Gamongoa muinoaren ekialdeko magala induskatu beharko da. Halaber, muinoaren goialdetik igarotzen den egungo bidea birmoldatu egingo da, nagusiki, sekzioari dagokionez, lehendik dauden baserrietarako eta familia bakarreko eta bi familiako etxe berrietarako zerbitzu-sareak kokatzeko.

Aparkalekuak. Bi soto-solairu planteatzen dira bizitegi-eraikinetan, 912 plaza pribaturekin, guztira. Iparra-hegoa errepide berrian, aparkaleku publikoa planteatzen da, baterian, 177 plazakoa guztira. Plaza nagusian, sestra azpiko aparkaleku publikoaren zuzkidura aurreikusten da, 90 plazakoa, hiru soto-solairutan, eta beste 90 plaza sestrapean, iparralderago geratzen den zatian, Arramendi pasealekuko bidebanatzetik eta hori Masti-Loiditik banantzen duen bidetik gertu.

Eraispenak. Goiko zonaldeko baserri bat eraitsiko da, baita lehendik dauden zoladurak ere, nagusiki bituminosen eta hormigoi-zolarrien nahastearekin osatuta daudenak.

Lur-mugimenduak. Planak urbanizazioari loturik proposatutako aurretiazko kubikazioan ez dira sartu eraikinen sotoak induskatzeko lanak. Induskatze-bolumena 223.000 m³ izango da. Horietatik, ia 100.000 m³ urbanizazio barruko betelanak egiteko erabiliko dira eta gainerako 213.000 m³-ak esparruaren barruan geratuko diren soberakinak izango dira, lehendik dauden ibarbideak betetzeko erabiliko direnak.

Zerbitzu-sareak. Euri-urak biltodien bidez bideratzen dira Pekin errekaraino. Ur beltzak saneamendu orokorreko sarera konektatzen dira urbanizazioaren beheko zonaldean. Sare orokorretik egiten da hornidura, bi puntutan. Energia elektrikorako, erdi-tentsioko linea jartzea aurreikusten da, behe tentsioko lineak abiatuko diren transformazio-zentroak elikatzeak. Gas, telefono eta argiteria publikoko sareak ere ezarriko dira. Ekialdean dagoen gas-hoditeria desbideratu egin behar da, lanek eragin egingo baitiote.

2. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta aplikatzeko jasagarritasun-irizpideak.

Plana egiteko funtsezko oinarritzat hartuko dira IV. Ingurumen Esparru Programa 2020ren helburu estrategikoak eta jarduera-ildoak. Zehazki, kontuan hartu beharko da nola Planak barne hartzen duen 1.3 jarduketa-ildoaren 9. jarduketa, zeinak honako hau ezartzen baitu: *«Biztanleria-dentsitate handiagoei lehenetsia ematen dien, erabilera-konbinazioa sustatzen duen eta lurzoru-kontsumoa optimizatzen duen lurralde-antolamendu adimendun bat ezartzen dela bultzatzea, haren berrerabilpena eta birsortzea lehenetsiz»*.

Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko Lege Orokorrean bildutako irizpideak (otsailaren 27ko 3/1998 Legea) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuan bildutakoak jaso beharko ditu.

Era berean, kontuan hartuko dira planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 2. artikulua aplikatuz, honako hauek dira Planaren ingurumen-ebaluazioa gidatu beharko duten garapen jasagarriaren printzipioak:

- Habitata eta espezieak, ingurumen naturala eta konektagarritasun ekologikoa zaintzea eta hobetzea.
- Paisaia eta kultur ondarea kontserbatu eta hobetzea.



- Lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzea eta lehendik ere artifizialduta dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
- Hiri-segregazioa, hiri-barreialdura eta mugikortasun behartua saihestea irisgarritasuna sustatzeko asmoz, lurzoruaren erabilaren plangintza integratuaren, mugikortasunaren, eta hiri-egitura dentsu, trinko eta konplexuen bidez.
- Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzoria jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- Baliabide naturalen kontsumo jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- Energia-aurrezpena, energia berriztagarrien efizientzia eta erabilera sustatzea, baita kogenerazioa ere.
- Aire garbia bermatzea, baita zarata eta argi-kutsadura handien mende bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, baita baliabidearen erabilera jasangarria ere.
- Klima-aldaketaren aurreko zaurgarritasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta egokitze neurriak integratuz.
- Arrisku naturalak gutxitzea.

3. Esparru geografikoa eta ingurumen-arlo garrantzitsuak

56. sektorea - Gamongoa, 258.453 m²-ko azalera duena, Errenteriako hirigunetik hegoaldera dago. Iparraldean, GI-20 errepidea du muga; ekialdean, GI-3671 errepidea eta Masti-Loidi industrialdea; eta hegoalde eta mendebaldean, Txirrita-Maleo industrialdea. Sektoreak muino bat eta Gamongoako magalak hartzen ditu, batez ere iparraldeko eta ekialdeko magalak, hirigunerantz, malda handiekin. Muinoaren gainean, San Markosko bidean zehar dauden bizitegi-eraikin eta baserri sakabanatu batzuk daude. Halaber, sektorearen erdialdean eta mendebaldean zenbait zerbitzu-azpiegitura daude (ur-biltegia, ponpaketa-estazioa eta Gas Euskadiko erregulazio- eta neurketa-estazioa).

Esparruan eta haren ingurunean ez dago eremu babesturik, interes geologikoko gunerik edo paisaia berezirik. Elementu eta eremu antropizatuez inguratutako landa-eremua da. Hala ere, Atlantikoko haranetako berezko paisaia-ezaugarriak ditu. Batasunaren intereseko habitaten EAEko maparen arabera, lurzoru horietako batzuk 6510 habitatari legozkioke –altuera baxuetako sega-belardi elkorrak, harizti azidofilo solte batzuk eta baso misto-atlantikoa, batez ere eremuaren erdialdeko ibarbideetan. Faunari dagokionez, litekeena da goian aipatutako formazioei lotutako espezieak egotea. Hasierako dokumentu estrategikoak adierazten du sektorea bat datorrela bisoi europarrarentzat interes berezia duen eremuarekin, baina adierazi behar da ibai-sarearen zati hori ez dagoela sartuta Gipuzkoako espeziearen kudeaketa-planean. Bestalde, hasierako dokumentuan adierazten da ingurunean kiroptero mehatxatuak egon daitezkeela.

Esparruaren ipar-ekialdean dagoen haranaren hondotik Arramendi edo Pekin erreka igarotzen da, sektorearen barruan 180 m-ko tartean. Hasierako agirian adierazten da erreka horrek ur-hartunea duela sektorearen ekialdean.

Sektorean ez dago kutsatuta egon daitekeen kokalekurik; lurpeko urak kutsatzeko arriskua oso txikia da, eta ez du uholde-arriskurik. Iparraldeko eta ekialdeko magaletan, etorkizuneko bizitegi-garapenaren kokalekuan, kontrako baldintza geoteknikoak daude, higadura-arriskua dutenak.

Kultur ondareari dagokionez, Tobar baserriko eraikin bat bakarrik topatu da sektorearen goiko zonaldean.

Sektorearen egoera akustikoa txarra da, GI-20 errepidetik hurbil dagoelako. Errepide hori trafiko-dentsitate handikoa da eta sektorearen iparraldeko muga zehar doa. Gainditu egin dira EAEko kutsadura akustikoari buruzko 211/2012 Dekretuan ezarritako etorkizuneko bizitegi-garapenetarako kalitate akustikoaren helburuak, bai eraikinen goiko solairuetako kanpoaldean, bai fatxadetan.

4. Jarduketak egiteko desegokiak diren eremuak.

Gamongoako magalak nekazaritza- eta basogintza-izaerakoak dira, belardi-mosaiko batek (Batasunaren interesekeo habitata: 6510) eta bertako landarediko zuhaitziek (haritzia / baso misto atlantikoa) osatuta, eta, beraz, babestu egin behar dira ibarbideetan eta Gamongoako beste enklabe batzuetan dauden zuhaitzi autoktonoak, urbanizazioak eta eraikuntzak zuzenean eragina izango duen eremutik kanpo egonda ere, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 2.e) artikuluaen printzipio orokorrekin bat (Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko Legearen testu bategina onartzen duena, eta II. ERANSKINEKO 1.a.2 apartatuko d) letra: Biodibertsitatearen tratamendua - *Biodibertsitatearen tratamendua - Aplikazio-arauek: Ingurune fisikoaren antolamendua* - EAEko Lurralde Antolamenduko Gidalerroak). Helburu hori kontuan hartuta, Berdegune eta Espazio Libreen Sistema Orokorrean integratutako masa autoktonoak garatzen diren eremuko ibarbideak ezin izango dira erabili lur mugimenduen soberakinak gordetzeko.

5. Egindako aurretiazko kontsultetako erantzunen ingurumen-azterlan laburra.

Jarraian, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulta-izapidean jaso diren txostenetako ingurumen-arloko eduki garrantzitsuenak laburbildu dira:

- Eremuan, orain arte ez da aurkitu lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako kokalekurik.
- Planak ez du inpaktu handirik eragiten osasun publikoan, ez behintzat ingurumen-inpaktuaren azterketan edo ebaluazio-prozesuan bertan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdietan.
- Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren datu-basean 47. elementu arkitektonikoa dago, Tobar baserria, hasierako dokumentu estrategikoan jasotzen den bezala. Berretsi da Planak eraikuntza hori finkatzea aurreikusten duela.
- Ingurune horretan, natura-ondarearen ikuspegitik balio handiagoa duten elementu gisa, bertako hostozabalen zenbait zuhaitzi nabarmentzen dira (batez ere, haritzia eta baso mistoa); sektorean barreiatuta daude, nekazaritza- eta basogintza-mosaikoa eratuta. Zuhaitz autoktonoen formazio horiek babestu egin behar dira apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko Legearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Antolamendu Jarraibideen testu bategina onartzen duenak, xedatutakoaren arabera. Beraz, parke publikoaren diseinua lantzeko, bertako hostozabalen arboladiak mantendu behar dira, eta horien egoera ekologikoa hobetzeko lanak baino ez dira egin behar. Alde horretatik, babes-neurriak proposatzen dira, eta bizitegi-garapena gauzatzeko masa horietan eraginik izanez gero, konpentsazio-neurriak hartu beharko dira natura-ondarearen galera garbirik ez gertatzeko.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu behar diren funtsezko alderdien definizioa eta irismena.

Planak indarrean dagoen Errenteriako HAPOan ezarritako antolamendu-araubidea aldatzen duten zehaztapenak jasotzen ditu. Hortaz, kasu horretan egingo den ingurumen-ebaluazioa aurreikusitako aldaketen ondorio espezifikoetan oinarrituko da. Alegia, proposatutako aldaketatik eratorritako ondorioak besterik ez dira kontuan hartu beharko, eta ez plana aldatu izan ez balitz ere gertatuko lirakekeen ondorioak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxienezko edukia izango du, eta hori urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoarekin osatu beharko da. Lehen adierazitakoari jarraiki, azterketak honako eskema metodologiko honi jarraitu beharko dio:

1. Proposatutako planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena



- 1.3. Planifikatzeko aukerak
2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak
3. Ingurumen-efektuak
4. Prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak.
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla-eta, ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) gutxienez hurrengo alderdietan sakondu behar luke, jarraian adierazitako zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

6.1. Planaren deskribapena

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterketan HAPOaren aldaketarekin lortu nahi diren helburu nagusien laburpen txiki bat jasoko da. Azterlanak era espezifikoan justifikatu beharko du nola hartu diren kontuan Planaren elaborazioa egitean Ebazpen honetako 2. apartatuan ingurumena babesteko jaso diren helburuak eta printzipio eta irizpide jasagarriak.

b. Planaren gainetik dauden plan edo programak identifikatuko dira, haien helburuak eta determinazioak planaren bidez garatzen baitira. Planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien determinazioak eta aurreikuspenak azaletik deskribatuko dira, baita plan edo programa horretan aplikatzekoak diren ingurumena babesteko irizpide, helburu eta determinazioak ere. Hierarkian Planaren gainetik dauden plan edo programen onespenez egintzaren aipamena eta data aurkeztuko dira, eta plan edo programa horiek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende jarri diren ala ez zehaztuko da.

c. Planaren bitartez HAPOaren barruan aldatuko diren alderdi zehatzak eta zehaztapenak deskribatuko dira.

d. Hala badagokio, HAPOaren eta hori garatzeko beste tresna batzuen ingurumen-adierazpen estrategikoan ezarritako irizpide eta zehaztapenak bilduko dira, baldin eta ebaluatutako Planaren esparru edo xedean aplikatzekoak badira. Horrelako kasuetan, ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da, eta zehaztu egingo da zer Aldizkari Ofizialetan argitaratu diren, kontsultatzeko gunerako esteka ere txertatuta.

e. Arauetan eta planarekin erlazio hierarkikorik ez duten beste plan eta programa batzuetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak zehaztuko dira, aplikagarriak direnean, hala nola Kantauriko Ekialdeko Plan Hidrologikoa, Gipuzkoako errepideetako zarataren aurkako ekintza-planak, eta abar.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Planean garatzen den planeamendu mota adieraziko da, eta egiturazko antolamenduari edo antolamendu xehatuari zein neurri edo jarduketara dagozkion zehaztuko da.

b. Aldaketaren irismena behar bezala definituta utzi behar da, aldaketa egin aurreko aurreikuspenak (planaren ingurumen-ebaluazioa egitean indarrean zeudenak) eta aurreikuspen berriak alderatuz.

c. Planean proposatutako aldaketak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketaren ezaugarriei buruzko aurreikuspen bat egingo da. Epigrafe honetan biltzen den informazioa eskala egokian islatuko da kartografian, eta lurraldearen erabilera islatuko du, baita ingurumen-ondorio nabarmentak ekar ditzaketen Planaren aurreikuspen eta jarduketak ere.

d. Ingurumenean eragina izan dezaketen planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handikoenetik txikikoenera hierarkizatuko dira, haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide

naturalen kontsumoa kontuan hartuta. Horrela deskribatutako planeko ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo ataletan erabiliko da, eta atal horietan haren aipamena egin beharko da. Zehazki, lurren balantzearen alde zurreko balioespina egingo da, eta bertan sartuko dira, halaber, iparrahegoa errepideko ezpondak eratzeko induskatu beharreko bolumenaren zenbatespina eta eraikinen eraikuntza. Hori guztia, sektoreko urbanizazio-proiektuak sartu beharreko kalkulu zehatzaren kalterik gabe. Era berean, material horien kudeaketa eta helmugari buruzko informazioa aurkeztuko da.

e. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Zehazki, adieraziko da 56 – Gamongoa sektorearen antolamendu xehatuari buruzko tresnak idaztea edo, hala badagokio, prestatzea aurreikusita dagoen. Era berean, garapen-tresna eta /edo -proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela aurreikusiko da.

f. Nolanahi ere, Plana garatzeko aldi baterako xedapena erantsiko da, eta, bidezkoa bada, zurreko ataletan azaldutako ekintzetarako zehaztuko da.

e. Epigrafe honetan biltzen den informazioa eskala egokian islatuko da kartografian, eta lurraldearen erabilera islatuko du, baita ingurumen-ondorio nabarmenak ekar ditzaketen Planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Hala badagokio, proiektuen kokapena eta neurriak adierazten dituen informazio kartografikoa sartu beharko da. Planaren ezaugarriak eta kokalekua kontuan hartuta, shape formatuko kartografia aurkeztuko da, jarduketan antolamendua eta ordenamendua islatuz.

6.1.3. Planifikatzeko aukerak

a. Plana emateko prozesuan kontuan hartu diren aukera guztiak azaletik deskribatuko dira. Alternatiba horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta alderdi hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknika, aldi baterako garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi.

b. Zehazki, EAEko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 39. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, aplikagarria den antolamendu xehatua onetsi aurretik, 37. artikuluko inpaktu akustikoari buruzko azterlanean, etorkizuneko hirigintza-garapenei buruzkoan, eremurako edo eremuetarako diseinu-alternatiben azterketa sartu behar da (gune desberdinak, eraikuntza-partzelen kokapenak eta xedapenak eta erabilera akustikoen orientazioa).

d. Alternatiba horien irismena deskribatuko da, eta aukera bakoitzetik eratorritako proiektuen eta Planeko ekintzen arteko aldeak zehaztuko dira, 1.2.c apartatuan deskribatutako proiektuekin eta Azterlaneko 1.2.d apartatuan deskribatutako ekintzekin alderatuta.

e. Kontuan hartutako plangintza-aukerak baztertzeko eta proposatutako aukera azkenik hautatzeko arrazoen laburpena ere bilduko da.

f. Aztertutako alternatibak kartografikoki jasoko dira.

6.2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea

Azterketak Planaren aldaketak eraginpean hartzen dituen esparruetako ingurumen-egoeraren alderdi garrantzitsuak deskribatu beharko ditu. Karakterizazio hori elementu abiotikoei eta biotikoei buruzkoa izango da, bai elementu mota bakoitzaren ikuspegi sektorialetik, bai haien interakzioen ikuspuntutik egina, ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emateko.

Planaren eraginpeko esparrutzat, antolamendu-esparru osoaz gain, haren ingururik hurbilena hartu behar da, Planaren ekintzek ingurumen-ondorio garrantzitsuak izan ditzaketen eremuetara mugatuta.



Ingurunearen kalitateari buruzko alderdiei buruzko informazioa azterketetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta izenburua, urtea, egilea eta, hala badagokio, lana bere osotasunean kontsulta daitekeen gunerako esteka adieraziko dira.

Azterketak eskala egokiko planoak izango ditu, ingurunearen aldagaiak islatuta.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

- a. Ingurune Fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, masak eta ur puntuak, faktore klimatikoak eta lurzoru mota.
- b. Natura-ondarea. Interes natural eta ekologikoko elementuak jasota utziko dira: landaredia, baso autoktonoak, intereseko habitata, basa-flora eta -fauna, ondare geologikoa, korridore ekologikoak eta abar. Ahal den guztietan, datu kuantitatiboak aurkeztuko dira. Halaber, egungo elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, baita interes maila, zaurgarritasuna, egungo presio eta mehatxuak ere, plana gauzatzean areagotu daitezkeenak.
- c. Paisaia. Paisaiaren aldetik interesekoak diren eremuak hartuko dira kontuan, hala nola ikusizko mugariak eta pertzepzioaren ikuspegitik interesgarriak diren beste elementu batzuk.
- d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Uholdeak izateko arriskuari, lurpeko uren kalteberatasunari, arrisku geoteknikoei, klima-alaketak eragindako arriskuei edo aipatu beharreko beste edozein ingurumen-arriskuri buruz bildu ahal izan diren datu guztiak aurkeztuko dira.
- e. Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Iturri kutsagarrien presentzia identifikatuko da eta kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak izan dituzten kokalekuak dauden aztertuko da. Baliabide naturalen erabilgarritasuna aztertuko da, batez ere urarena.
- f. Kultura-ondarea. Hautemandako elementu bakoitzaren garrantzia, zaurgarritasuna, tresna eta babes maila adieraziko dira. Hala badagokio, kultura-ondasunari kalifikazioa eta babesa ematen dion xedapen arauemailearen erreferentzia aurkeztuko da. Ondare ez-materialeko elementuak hartuko dira kontuan.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak

Aurreko atalean azaldutako deskribapen eta datuetan oinarrituta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta labur-labur jasoko dira ingurumen-alorreko elementu, prozesu, arazo eta arrisku esanguratsuenak, ingurumen-ebaluaziorako prozesuan garrantzitsuak izango direnak. Ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren esparru, elementu edo egoeretan jarri beharko da arreta, baita eragina jasan dezaketen alderdietan ere, planean jasota dauden aldaketen ondorioz sortuko diren proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak kontuan hartuta.

Ingurumen-azterketa estrategikoak ingurumenaren aldetik arazotsuak izan daitezkeen eremuak hauteman beharko ditu, proposamenen garapena horiekin bateragarri egiteko; horretarako, kontuan hartu beharko du Ebazpen honen 3. atalean adierazi diren eta ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremu edo elementuak daudela. Era berean, eremuaren ingurumen-diagnostiko egokia egin beharko da, haren harrera-gaitasuna, arrisku guneak eta eremu hauskor edo kalteberak ebaluatzeko.

6.3. Proposatutako planaren ingurumen-ondoreak

- a.- Atal honetan, Planean bilduriko ekintzek azterketaren 2. atalean deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan izan ditzaketen efektuak identifikatu eta baloratu beharko dira, efektu horien ezaugarriak deskribatuta. Planaren ondorioak identifikatu eta ezaugarritzeko, lanean aurreikusitako ekintzen eta eragin

ditzaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren arteko interakzioak aztertuko dira, baita sor daitezkeen edo larriagotu eta areagotu daitezkeen ingurumen-arazoak eta -arriskuak ere.

Ezaugarrien deskribapenean zehatz eta argi adierazi beharko da zer motatako efektua den, honako hauek bereizita: zeharkako efektuak, metatze-efektuak, efektu sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako efektuak, efektu iraunkorrak eta behin-behineko efektuak.

Azterketaren 1.2.d atalean identifikatutako ekintza guzti-guztien ondoriozko ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, atal horretan ekintzei esleitutako kodea berariaz aipatuta. Hala dagokionean, zenbait ekintzaren konbinaziotik eratorritako efektuak zehaztuko dira. Era berean, biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan ditzakeen edozein ingurumen-izaerako efektu bereiziko da.

Horrela deskribatutako planeko efektu bakoitzari kode bat esleitu zaio. Kode hori azterketaren hurrengo ataletan erabiliko da, eta atal horietan haren aipamena egin beharko da.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauen analisia jorratuko da:

- Planeko jarduketek eragingo duten landaredia autoktonoaren azalera kuantifikatuko da. Halaber, Europar Batasunaren intereseko habitataren (6510 – altuera baxuetako sega-belardi elkorrak) balizko bilakaera aztertuko da, berdegune eta espazio librean sistema orokorrean sartu ondoren.
- Ildo horretan, Gamongoa sektoreko eremu libreetan betelanak egitea aurreikusten bada, jarduketa horiek ingurunean duten eragina aztertuko da.
- Drainatze-sarearen gaineko eraginari dagokionez, azterketan ikertu beharko da zer eragin izan dezakeen iragazgaizteak eta arroaren zati bat betelanekin okupatzeak infiltrazio- eta drainatze-gaitasunean, baita esku-hartzetik ibaian behera dauden eremuetan ere.

b.- Identifikatu eta kodetutako efektuak baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko zer probabilitate duten, zenbateko iraupena eta maiztasuna izan dezaketen, eta itzulgarriak ote diren.
- Ondorioen magnitudea eta irismen espaziala (adibidez, eragindako landaredia autoktonoaren eremua).
- Eraginpean gera daitezkeen eremuaren balioa eta zaurgarritasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - Ezaugarri natural, kultural eta paisajistiko bereziak egotea.
 - Aurkako ingurumen-baldintzak egotea, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrak edo muga-balioak gainditzeko moduan.
 - Planak ingurumen-arriskuak zein heinetaraino sortu edo areagotu ditzakeen.

Ahal den guztietan, efektuak kuantifikatzeko, Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketan datu neurgarriak erabiliko dira. Hala dagokionean, efektu horien aurreikuspenetan dagoen ziurgabetasun-maila zehaztuko da.

c. Halaber, ahal den neurrian, efektuak kartografia bidez lokalizatuko dira, eta, orobat, zehaztu egingo da plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen, aurreikuspenen arabera.

d. Hautemandako ekintza horrek Planeko determinazioak beste plan eta programa batzuetan sartzea eskatzen duen adieraziko da, eta kasu bakoitzean eragindako planifikazio tresna zehaztuko da.

e. Aurreikusitako erabilerarako ezarritako kalitate akustikoko helburuak betetzen diren aztertuko da, eta, horretarako, indarrean dagoen araudian araututako metodologia erabiliko da.

f. Hala deskribatutako ingurumen-efektuak hierarkizatu egingo dira, horien garrantzi erlatiboa nabarmentzeaz gain.

6.4. Neurri babesleak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak.



a. Atal horretan, azterketaren 3. atalean deskribatutako ingurumen-efektu kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko aurreikusita dauden neurriak deskribatuko dira. Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-efektu esanguratsurik sortuko, Planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Natura-baliabideak, natura- eta kultura-ondarea eta paisaia babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta atzemandako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea izango dute helburu.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-efektuekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta 3. atalean identifikatutako ondoren edo efektuekin –prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira. Zehazki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Esparruan dauden landaredia autoktonoko zuhaiztiak babesteko neurriak eta, hala badagokio, aleak desagerraraztea eta masak hondatzea konpentsatzeko neurriak. Horri dagokionez, kontuan hartuko dira Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak egindako txostenean proposatutako neurriak, aurretik egindako kontsultei erantzuteko.
- Arriaran edo Pekin errekaen ertzak leheneratzeko neurriak. Bioingeniaritzako teknikak erabiltzeko eta ibaiertzak naturalizatzeko egokienak diren atzerapenak aplikatuko dira.
- Drainatze jasangarriari buruzko neurriak, aurretiazko egoerari dagokion balioarekiko balizko isurketa-gehikuntza konpentsatu egin daitekeela edo garrantzirik gabekoa dela eta, beraz, arroko drainatze-sisteman aldaketarik ez dela gertatuko bermatzeko.
- Lur-mugimenduen ondoriozko soberakinen kudeaketa eta helmugari buruzko neurriak.
- Eraikin, ezpona eta bideak inguruko paisaian integratzeko neurriak. Hala badagokio, Plana gauatzeko proiektuen ingurumen-inpaktuaren azterketek paisaia integratzeko azterketa bat izateko beharra aztertuko da. Azterketa hori Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babesteari, kudeatzeari eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 7.3 artikuluan arautzen da.
- Etorkizuneko bizitokietako kanpoko ingurunean eta etxebizitzan barruan zarata-mailak murrizteko neurriak. Baloratu beharreko neurrien artean, etxebizitza-lurzatiek zarata-iturrietatik duten kokapenari eta diseinuari buruzko neurriak jasoko dira.

c. Proposatutako neurriak planaren zein zatitan txertatu diren adieraziko da, eta berariaz zehaztuko da neurri horiek planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren.

d. Hala badagokio, prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak proposatuko dira, plangintzaren geroagoko fase edo etapetan edo Plana gauatzeko etorkizunean diseinatuko diren proiektuetan aplikatzea komenigarri edo egingarria denean.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio eta zuzenketarako neurrien aurrekontua ere jasoko da, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona adierazteaz gainera.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa.

a. Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horiek alderdi hauek kontrolatzeko jomuga izan beharko dute:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen efektu kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko edo zuzentzeko aurreikusita dauden neurriak behar bezala abiarazten direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
- Plana gauzatzearen ondoriozko ingurumen-efektuak egiaztatzea, aurreikusi gabeko efektu kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek saihesteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.

- Prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar ote diren hautematea, plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresna eta proiektuetan.

b. Jarraipen-neurriak azterketaren 4. atalean jasotako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriekin identifikatuko dira, eta horiekin bat etorri beharko dute.

c. Ingurumena zaintzeko programak azterketan proposatzen diren adierazleak jaso beharko ditu, baita —kasu bakoitzean— datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruzko proposamen zehatz bat ere.

6.6. Ingurumen-laburpena.

a. Atal honetan, ingurumen-alderdiak planean txertatzeko modua deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren ingurumena babesteko ezarritako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak, azterketaren 1.1 atalean deskribatutakoak.

b. Aztertu egingo da, gainera, planak etorkizunean ingurumenean eragin adierazgarriak izateko zenbaterainoko arriskua dagoen eta beharrezko argudioak emango dira, honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak planean txertatuz gero oso arrisku txikia dagoela efektu esanguratsu horiek jazotzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik plana garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, azterketaren gainerako ataletan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez-teknikoa.

Azterketak emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat ere bilduko du, eta ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonak erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du laburpen horrek.

Atal honi, gainera, egindako ebaluazioa hobeki ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Jendaurreko informaziorako eta kontsultetarako izapideak.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak jendaurreko informazioaren izapidearen eraginpean jarriko du plan honen hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera, gutxienez, 45 egunez.

Era berean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan eragindako administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsultei buruz xedatutakoaren ondorioetarako, erakunde eta pertsona interesatuen zerrenda hau hartuko da kontuan:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Osasun Publikoaren eta Adikzibenez Zuzendariordetza.
- Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura-ingurune Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuko Kudeaketa eta Plangintzako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza
- Ihobe. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.



- URA - Uraren Euskal Agentzia
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan elkartea.
- Eguzkizaleak Aisialdirako Elkartea.

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikulua arabera, kualifikazio profesionala eta goi-mailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoa duten pertsonak egin beharko dute Azterketa, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango du. Azterketaren egileak identifikatu egin behar dira, haien titulazioa eta, hala badagokio, lanbide arautua adierazita. Identifikazioak barne hartu beharko ditu izena, abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren edo helburu bererako beste edozein agiriren kodea (elkargokide-zenbakia entregatuz gero, horrek bat etorri behar du elkargo profesional jakin baten erregistroarekin). Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Azterlanaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira horiek, Administrazioak berak frogagarri gisa emandako datuei dagokienean izan ezik.

Dokumentazioa aurkezteko, jarraibide hauek bete beharko dira:

1. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuek koherentzia egokia errespetatu beharko dute, haien artean nahiz aurretik aurkeztutakoekin, halakorik bada, hartara erabakia hartu behar duten administrazio-organoen lana erraztuz eta ez eragotziz.
2. Arreta berezia jarri beharko da kasu bakoitzean dokumentu teknikoan atalak haien artean erlazionatzea ahalbidetzen duten datuak adieraztean (esaterako, atal batean proiektuko ekintzak deskribatzen badira eta beste batean ekintza horiek eragindako ingurumen-inpaktuak, bi kasuetan ekintzak izen berarekin aipatu beharko dira).
3. Beharrezkoa bada, datuak zein iturritatik lortu diren adierazi behar da.
4. Planaren, programaren edo proiektuaren dokumentazio grafikoa eta kartografikoa sartu behar da hala eskatzen duten ataletan. Planoak pdf formatuan entregatu beharko dira, geoerreferentziatuta.
5. Analisi tekniko egokia errazteko, bistartzeko pdf formatuko artxiboez gain, planoen kopia gehigarri bat entregatu beharko da shape formatuan (ahal dela, UTM30N ETRS89 erreferentzia-sistema erabilita), 10 Mb-koa baino gutxiagokoa izan beharko dena. Shape fitxategi horretan, 4 fitxategi hauek ZIP fitxategi batean entregatuko dira konprimituta: .shp, .shx, .dbf, .prj.

Lau fitxategiak bilduko dituen «eremua.zip» shape konprimituaren adibidea:

- eremua_adibidea.shp
- eremua_adibidea.shx
- eremua_adibidea.dbf
- eremua_adibidea.prj

6. Plano guztiak kodearekin eta tituluarekin identifikatu behar dira. Halaber, honako hauek adierazi beharko dira: irudikatutako datuak zuzen interpretatzeko behar diren azalpenak eta sinboloak; eskala grafikoa eta zenbakizkoa, inprimatzeko formatua adierazita; sinadura eta noiz egin den.
7. Jatorrizko eskalatik murriztutako planoak aurkeztuz gero, zuzendu egin beharko da planoan jatorrian adierazitako eskala, aurkeztutako planoan oinarritutako neurketek ez dezaten akatsik izan.
8. Testuetan zehar aipaturiko eranskin, irudi, plano edo argazki guztiak dokumentazioarekin batera aurkeztuko dira. Erreferentzia horiek kasuan kasuko elementua erraz aurkitzeko moduan egingo dira, argi eta garbi.
9. Informazio jakin bat dokumentuko atalen baten zuzenketa gisa aurkeztekotan, eta aldi berean espedientearen zuzendu nahi den atala mantentzen bada, informazio berriak adierazi beharko ditu zuzenketaren ondorioz jatorrizko dokumentuan ezeztatutak edo ordezkaturak jo beharreko kapituluak, orrialdak, epigrafeak, atalak, lerroak, esaldiak, koadroak, irudiak, planoak eta abar. Aurreko informazioaren bat osatzen edo zuzentzen duen informazioak egoera horren berri eman beharko du

hasieran. Eskaera bat zuzentzeko aipatutako jarraibideak betetzen ez badira, izapide gehigarri bat eska dakieke, kontraesanezko edo inkongruenteak izan daitezkeen alderdiak argitzeko, eta horrek atzerapena eragin dezake prozeduraren ebazpenean.

10. Eskaera IKS-eem sistemaren bidez aurkeztu beharko da, aplikatzekoak diren fitxak eta formularioak erabilia; horiek Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean eskura daitezke, helbide honetan zehazki: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-orokorra/eu/contenidos/informacion/guia_iks/eu_def/index.shtml.
11. Dokumentu bat .pdf formatuan aurkezten denean, gehienez 30 MB izango ditu eta bilaketak egitea ahalbidetu beharko du. Dokumentu handiagoak zatitu egin beharko dira, sisteman sartuko badira.
12. Aurkeztutako dokumentazio guztiaren aurkibide oso bat gehituko da, atal bakoitza zein orrialdetan dagoen zehaztuta. Aurkibidea aurkeztean .pdf dokumentu baterako, adierazitako orrialde-zenbakia bat etorriko da orrialde hori aurkitzeko irakurketa-programaren «Joan orrialde honetara» aginduan adierazi behar denarekin.
13. Organo sustatzaileak, datuak igortzean, datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzen duela bermatu beharko du beti.

Bigarrena. - Ebazpen hau Errenteriako Udalarari jakinaraztea.

Hirugarrena. - Ebazpen hau Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko azaroaren 27an

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria
Director de Administración Ambiental

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
IVAN PEDREIRA LANCHAS
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA